

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure proiektuak ondo funtzionatzeko, hainbat bazkide eta hornitzaile behar ditu. Lehenengo eta garrantzitsuenak garajeen jabeak dira. Gure zerbitzua haien garajeetan oinarritzen da, eta garajerik gabe ez litzateke proiekturik egongo. Horregatik, jabeekin akordio errazak eta argiak egitea oso garrantzitsua da, garajeak modu seguruan erabiltzeko.

Bigarrenik, teknologia-hornitzaileak behar ditugu. Gure zerbitzua aplikazio baten eta webgune baten bidez erabiltzen denez, software-enpresa batek plataforma sortu eta mantendu behar du. Haien lana oso garrantzitsua da aplikazioa azkarra, segurua eta erabiltzeko erraza izan dadin. Funtzio berriak garaiz prest ez badaude, zerbitzuaren kalitatea okertu daiteke.

Hirugarrenik, ordainketa-sistemak kudeatzen dituzten bazkideak ezinbestekoak dira, adibidez Bizum edo Stripe. Haien bidez, erabiltzaileek segurtasunez ordaindu dezakete, eta garajeen jabeek dirua erraz jasotzen dute. Haiek gabe, gure zerbitzua ez litzateke fidagarria izango.

Gainera, garai jakin batzuetan, adibidez udan edo jaiegunetan, baliteke kanpoko enpresen laguntza behar izatea. Eskaria handitzen denean, langile gehiago behar dira garaje berriak erregistratzeko, bezeroei arreta emateko edo mantentze-lanak egiteko.

Azkenik, oso garrantzitsuak dira segurtasunarekin lotutako enpresak, adibidez ate adimendunak, kamerak edo sarbide-sistemak jartzen dituztenak. Haien lana funtsezkoa da erabiltzaileek lasai aparkatu ahal izateko. Baliteke, gainera, segurtasun-sistema horien teknologia berezia duen bazkide bat ere behar izatea.

